

Balio handiko lehengai baten jabe

Aurreko buletinetan aipatu dizuegu eta errepikatu beharrea gaude: gure kezka areagotzen doa, basojabe asko ez baikara jabetzen gure lehengai merkatuan berreskuratzen ari den balioaz. Erne egon zaitetzen eskatzen dizuegu. Tasazioa oso tresna ahaltsua da. Eta tasazioak erosleak gure izenean egiten ari dira. Hau horrela da. Are gehiago, **jabeentzako desabantaila nabarmenean ixten diren eragiketa ugariren lekuko izaten ari gara elkartean**; edo, bestela ikusita, erosleentzako abantaila argian; batzuetan eragiketa biribilak egiten baitituzte egurzaleek, irabazizko handiekin zura gutxiestearen kontura.

Lekua irabazten ari zaizkigu eta hori ezin dugu aldatu egun batetik bestera; **autoestimatu txikia izateko joera** hori, gure kaltean dabil. Kezkaz ikusten dugu erosle askok abantailarekin jokatzeko jarraitzen dutela, tasazioen eremua berreskuratzen ari direla; eta haien baldintzak guk geuk ontzat ematen ditugulako ezartzen direla. Baina, ez dezagun ahaztu: egurzaleek gure zura behar dute, eta garai zalantzarriak bizi ditugu, lehengai honen balioa gorantz doana. Eta elkartearen betebeharra da jabeen tresnei balioa ematea da, gure zuraren balorazio egokia egiteko.

Gipuzkoako Baso Elkartean **ez gara finantza-merkatuetako brokerrak, ezta adituak ere**. Arrotz egiten zaizkigu geroko finantzieroa, komoditien gorabeherak eta burtsako beste tresna batzuen kotizazioak, **baina badakigu gure bazkideetako askok egurra merkeegi saltzen ari direla** eta beste batzuk aberasten direla horrekin, gainera mesede egiten digutela sinestarazten digutela.

Ez dezagun ahaztu, gerokoen merkatuetan egurrak funtsezko lehengai gisa kotizatzen duela. Eta merkatu finantziero horietan eguarra izugarri igo da hilabete batzuetan. Hiru bider.

GURE AHOLKUAK:

- Ez zaitzatela nahastu. Egurzale batzuk Gipuzkoako Baso Elkarteko bazkideak ere badira, basojabe ere badirelako. Haien lana funtsezkoa da guretzat, eta gure arteko harremana naturala da, baina ez gaude toki bereberean salerosketaren unean. Gure topaketak, lan-bilerak, hori baino ez dira: lan-bilerak. Ez zaitzatela nahastu.

- Badakigu argia asko igo zaiela, ezagunak dituztela gure artean, baita lagunak ere, baina ezin dugu ahaztu zein den bakoitzaren lekua salerosketaren unean; ezin dugu onartu lotura horiek gure kalterako izatea. **Eragiketak bidezkoak izan behar dira bi aldeentzat.**

- GEBEren azken batzarrean, 2021eko ekainean, jada adierazi genizuen zer ahalegin egiten ari garen elkartearen barruan basogintzako langileen interesak hobeto defendatzeko industriaren aurrean.

- Jabeok, eta ez beste inork, protagonista sentituko garen espazio bat sortu behar dugu, baso-produktuen negoziatzaileen, errematatzaileen, zerratzaile industrialaren, birsaltzailearen edo zur-transformatzailearen ordezkarien aurretik.

- Denok osatzen dugu sektoreko balio-katea, **baina batzuen eta besteen interesak gatazkan sar daitezke salerosketetan.** Hau da, baso-jabeari bere zuhaitzengatik ahalik eta errendimendu handiena lortzea interesatzen zaion bitartean, eskuratzailleak bere interes legitimoa defendatzen du, ahal bada lehengai merkeena lortzen saiatuz.

- Salerosketako interes-gatazka natural horretan, GEBEk jabeen aldean egon behar du soilik, eta haien interesen segurtasun eta defentsa-esparru bat sortu behar du. Eta gune hori baso-jabeen elkarte izan behar da, Gipuzkoako Baso Elkartea.

Hemen duzue tasazio bidezkoaren garrantziari buruzko 2020ko azaroko buletinean argitaratu genuen erreportajaren esteka:

https://basoa.org/dmdocuments/Tasazioa_3.pdf